Zarauzko Udala
Zk./ Nº 2026/6
Data / Fecha 2026/07/16
Akta / Acta

ZARAUZKO UDALA

2026ko MAIATZAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA 6 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2026ko apirilaren 28an, arratsaldeko zazpiretan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko osoko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua Xabier Txurruka Fernandez jn.

Zinegotziak
Garbiñe Oiarbide Iruretagoiena and.
Irune Urbieta Alberdi and.
Jesus Arana Gomez jn.
Iban San Martin Hernandez jn.
Leire Arana Olabarrieta and.
Gervasio Gabirondo Fernandez jn.
Estibaliz Agirre Uranga and.
Naiara Mendivil Ayerza and.
Itziar Murua Uria and.
Ion Arozena Eizagirre jn.
Ainara Landa Argote and.
Ainhize Larramendi Larrarte and
Ander Lukas Arantzeta jn.
Jesus Goikoetxea Balentziaga jn
Eider Gurrutxaga Larrañaga and.
Garazi Olaizola Irureta and.
Gloria Vazquez Herranz and.
Inaxio Illarramendi Lizarreta jn.

Ez etorriak:
Iker Basurko de Miguel jn.
Mikel Agirre Etxaniz jn.

Idazkari akzidentala Xabier Aranburu Soldevilla jn.

Kontu-hartzaile akzidentala Itziar Kortabarria Garitano and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2026KO APIRILAREN 28KO BILKURAREN AKTA ONARTZEA:

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

ZARAUZKO UDALA

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260528&punto=1

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

— **2026ko apirilaren 23tik 2026ko maiatzaren 24ra**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260528&punto=2

Segidan, Alkatetzak 2026ko apirilaren 23tik 2026ko maiatzaren 24ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

— **2026ko apirilaren 27tik 2026ko maiatzaren 11ra**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260528&punto=3

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko apirilaren 27tik 2026ko maiatzaren 11ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- INFORMAZIOA: FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ

— **2026ko 1go hiruhilekoa**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260528&punto=4

Udalbatzak jakin berri du 2026ko lehen hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5.- INFORMAZIOA: ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:

— **2026ko 1go hiruhilekoa**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260528&punto=5

Udalbatzak 2026ko apirilaren 22ko 2026/908 dekretuaren berri jaso du.

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

Halaber, Udalbatzari jakitera eman zaio 2026ko lehen hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

6.- 2026-KALD-000004-00. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA

Espedientea: 2026D2010002

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260528&punto=6

Akordio-zirriborroa irakurri ondoren, udal taldeen iritzi trukaketarako tartea zabaldu da. Eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Bertaratuak edo ordezkatuak	19	(9 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Aldeko botoak:	11	9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	8	8 EH Bildu
Abstentzioak:	-	

Beraz, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den 2026-KALD-00004-00 espedientea aztertu dugu.

Alkateak egindako proposamena aztertu da, baita gainerako txosten, ziurtagiri eta jarduketak ere. Hortik ondorioztatu da adierazitako aldaketa aurrekontuaren exekuzioa arintzeko lagungarria izango dela eta horren izapidetzea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin.

Hau ikusita eta Antolakuntzako informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak gehiengoz

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2026-KALD-000004-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den kapitulukako xehetasunarekin eta ondorioz 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 6. Eranskinaren aldaketari:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
II KAPITULUA	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	100.820,00

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

IV KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	30.000,00
VI KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	5.335.000,00
	KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA	**5.465.820,00**

BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII. KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK (Diruzaintza gerakina)	5.465.820,00
	GUZTIRA	**5.465.820,00**

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 15 egun balioduneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, Aurrekontu-aldaketa eta 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko dira eta bestela, berariazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak erabakitzeko.

7.- 2026-KALD-000006-00. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA

Espedientea: 2026D201001

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260528&punto=7

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Bertaratuak edo ordezkatuak	19	(9 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Aldeko botoak:	11	9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	8	8 EH Bildu
Abstentzioak:	-	

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den 2026-KALD-00004-00 espedientea aztertu dugu.

Ikusita jarduneko kontu-hartzaileak egin duen txostena eta espedientean dauden dokumentuak eta Antolakuntza informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak gehiengoz

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

ZARAUZKO UDALA

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedienteari, konpromiso-kredituen modalitatekoa, 2026-KALD-000006-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin::

KONTUSAILA	AZALPENA	ZENBATEKOA ETA EKITALDIA 2027	GUZTIRA
5 0401.601.01.153.20 2027	MUNOA ZOLADURA	200.000,00 €	200.000,00 €
5 0401.601.01.342.00 2027	ASTIKO FUTBOL ZELAIA	1.300.000,00 €	1.300.000,00 €
5 0401.601.04.153.00 2027	TALAIMENDIKO ESPALOIA	600.000,00 €	600.000,00 €
	GUZTIRA		**2.100.000,00 €**

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 15 egun balioduneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, Aurrekontu-aldaketa eta 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko dira eta bestela, berariazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak erabakitzeko.

8.- LOKALEN ERABILERA UDAL ETXEBIZITZA TASATUETARA ALDATZEKO UDAL ORDENANTZAREN EGUNERATZEA. HASIERAKO ONESPENA

Espedientea: 2026H1330001

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260528&punto=8

Zarauzko Udalak beharrezkotzat jotzen du LOKALAK UDAL ETXEBIZITZA TASATU BIHURTZEKO ORDENANTZA berrikusi eta eguneratzea.

Ordenantza eguneratzea proposatzen da, bizigarritasunaren eta etxebizitza babestuaren arloan indarrean dagoen araudira egokitzeko eta ZARAUTZEN BIZI partaidetza-prozesuaren ondorioetako batzuk jasotzeko.

Zarautz-Lurreko eta Hirigintza eta Ingurumen Departamentuko teknikariek idatzi dute ordenantza eguneratzeko testua.

Zirriborroari aurretiazko kontsultaren tramitea egin zaio. Prozesuan zehar jasotako iradokizun bakarrari buruzko txostena egin da, eta hura ezestea proposatu.

Gaia aztertu ondoren, eta Lurraldeko Informazio Batzordeak hala proposatuta, Udalbatzak, aho batez, honako hau

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

ZARAUZKO UDALA

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea LOKALAK UDAL ETXEBIZITZA TASATU BIHURTZEKO ORDENANTZAren berrikuspen eta eguneraketari.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, interesdunek aukera izan dezaten alegazioak aurkezteko. Jendaurreko erakustaldia 30 egunekoa izango da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-taulan eta web-orrian iragarriko da.

Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordenantzaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, eta ez da beharrezkoa izango berariaz beste erabakirik hartzea. Hori bai, indarrean sartzeko, testu osoa argitaratu beharko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

LOKALAK UDAL ETXEBIZITZA TASATU BIHURTZEKO UDAL ORDENANTZA

I KAPITULUA

XEDEA, APLIKAZIO-ESPARRUA ETA ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da Zarauzko udalerrian bestelako erabilerak dituzten eta bizitegirako hiri-lurzoruan finkatutako etxebizitza-eraikinetan kokatuta dauden lokalak UDAL ETXEBIZITZA TASATU bihurtzeko baldintzak, betebeharrak eta prozedura arautzea.

2. artikulua. Aplikazio-esparrua

Ordenantza honen aplikazio-esparruan, baldintza egokiak betetzen dituzten behe-solairuko eta erdisotoko lokalak sartzen dira, baldin eta (i) ordenantza hau indarrean sartzen denean hiri-lurzoruan dauden bizitegi-eraikinetan badaude, (ii) erabilera aldatzeko lizentzia eskatzen den egunean indarrean dagoen hirigintza-plangintzaren arabera ez badaude antolamendutik kanpo edo plangintzaren kontra, eta (iii) etxebizitza bihurtu ahal izateko onartutako lokalen zerrendan badaude (I eranskina).

Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko ordenantzetan jarritakoa hartuko da kontuan beheko solairua eta erdisotoko solairua zer diren definitzerakoan.

Gaur egun ostatu turistikorako erabiltzen diren lokalak (hau da, apartamentu turistikoak, aterpetxeak eta abar) etxebizitza bihurtzeko egokitzat joko dira, baina derrigorrez bete beharko dituzte hirigintza-plangintza aplikagarrian, bizigarritasunari buruzko araudian eta ordenantza honetan jarritako gainerako baldintzak.

Ordenantza honen aplikazio-esparrutik kanpo gelditzen dira, eta, hortaz etxebizitza bihurtzeko aukeratik, honako hauek:

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

a) Sotoko konfigurazioa duten lokalak. Ordenantza honen eranskinetan jasotako lokal bat barrutik lotuta badago etxebizitza-erabilerarako egokitu ezin den beheragoko solairu batekin, azken hori behe-solairuko etxebizitzaren erabilera osagarrietarako erabili ahal izango da, eta barrutik duen lotura mantendu. Dena den, etxebizitzaren gutxieneko programaren espazioak behe-solairuan kokatu beharko dira.

b) Indarrean dagoen hirigintza-plangintzan garaje/aparkaleku erabilera espezifikora zuzendutako lokalak. Hala ere, nahiz eta berez garaje/aparkaleku erabilera izan, aipatutako solairuetan etxebizitza-erabilera baimenduko da baldin eta jatorrian beste hirigintza-erabileraren bat definituta badute (lokal komertziala, etab.).

c) Etxebizitza-erabilerara aldatzeko eskaeraren unean gutxienez bi (2) urte pasatu ez badira lokalean egiaztatutako azken jarduera komertziala edo tertziarioa bukatu zenetik, ostatu turistikoen jardueretan izan ezik (apartamentu turistikoak, aterpetxeak, etab.). Azken kasu horietan, erabilera-aldaketa eskatu ahal izango da, epe hori pasatu ez bada ere.

d) Urpean gera daitezkeen eremuetan kokatutako lokalak. Hala ere, uholde-arriskuko eremuetan erabilera-aldaketak baimenduko dira, baldin eta justifikatzen bada bizitegi-erabilera 500 urteko errepikatze-aldiko uholde-kotaren gainetik egongo dela. Kasu horietan, ezinbestekoa izango da Uraren Euskal Agentziak (URA) erabilera-aldaketa baimentzea edo, baimen hori agentzia horren eskumenekoa ez bada, kontuan hartutako kotari buruzko txostena egitea.

Ez da baimenduko erabilera publikoko lurzoruan arrapalak eraikitzea lokalaren barnekota igotzeko helburuarekin, salbu eta arrapala horiek espazio publikoan eraginik ez dutenean edo eragin hori hutsala denean.

Kasu bakoitzean udal teknikariek baloratuko dute ea etxebizitza bihurtzeko betebehar horiek betetzen diren, justifikazioko txosten baten bidez.

Eranskin honetan zehazten dira erabilera-aldaketa egitea baimenduta duten lokalak eta guneak:

— I eranskina: «Etxebizitza bihurtzeko onartutako gune eta atarien zerrenda»

Era berean, etxebizitza-erabilerara aldatzeko aukera emango zaie plan orokorrak baimendutako hirugarren sektoreko edo/eta ekipamenduko erabilera gehienetarako desegokiak diren lokalei, horien kokapena kontuan izan gabe.

Desegokitasunaren justifikazioa izaera fisiko/arkitektoniko eta ekonomikoko zirkunstantzia objektibo eta salbuespenezkotan oinarrituko da. Kasu bakoitzean udal teknikariek baloratuko dute ea baldintza horiek betetzen diren, justifikazioko txosten baten bidez.

3. artikulua. Araudi aplikagarria

Ordenantzak arautzen ez duen guztian, plangintza orokorreko eraikuntza-arau orokorrak eta UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO ORDENANTZA aplikatuko dira, erabilera-aldaketa egiteko lizentzia eskatzen den egunean indarrean daudenak.

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

ZARAUZKO UDALA

Era berean, aplikagarriak izango dira etxebizitza-erabilerarako bizigarritasuna, irisgarritasuna, segurtasuna eta halako baldintzak arautzen dituzten arau orokorrak, 6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Udalak, salbuespen gisa, aipatutako alderdiren bat (ordenantza hau edo indarrean dagoen plangintza orokorreko eraikuntza-arau orokorrak) ez betetzea onartu dezake, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik. Udal teknikariek salbuespenezko kasu horien berariazko txostena egingo dute, gaia aztertu ondoren, ordenantza honen espirituarekin bat datozen interpretazio-irizpideak kontuan hartuta.

4. artikulua. Bateraezintasuna jarduera sailkatu eta instalazio jakin batzuekin

Erabilera-aldaketa sustatzen duenak beharrezko neurri zuzentzaileak hartu beharko ditu beste erabilera batzuetara zuzendutako lokalen ondoan etxebizitza-erabilera garatu ahal izateko.

Edonola ere, behe-solairuko edo erdisotoko etxebizitza-erabilerarekin bateraezinak izango dira egoera hauek, arriskuak, zaratak, usainak, jende-pilaketak eta antzeko eragozpenak sor ditzaketelako:

A Eraikinaren edo eraikin mugakideen solairu berean honelako jarduera sailkatuak egotea:

- Ostalaritza, jokoa eta jendaurreko ikuskizunak, aldaera guztietan (diskotekak, tabernak, jatetxeak, etab.).
- Elkarte gastronomikoak, txoko pribatuak, erretzaileen eta cannabis kontsumitzaileen klubak eta antzekoak.
- Txikizkako merkataritza-erabilera pilatua.
- Aparkaleku eta garaje lokalak, 10 plaza baino gehiago badituzte.
- Jarduera industrialak eta sustantzia arriskutsuen biltegiak.
- Aurrekoen antzeko beste edozein jarduera.

Bateraezintasuna kasu hauetan bakarrik aplikatuko da: erabilera ezberdineko lokalak mugakideak badira edozein puntuan, eta, baita, lokalen artean 5 metrotik beherako tartea badago, fatxadaren edozein puntutik neurtuta.

B Lokalak mugakide izatea honelako instalazioekin: transformazio-zentroak, gasolio-biltegiak, berokuntza-galdara komunitarioak, instalazio-gelak, aire girotuko irteerak eta aurreko horien antzeko beste edozein. Kasu horietan ez da bateraezintasuna aplikatuko, baldin eta proiektuak neurri zuzentzaile egokiak definitzen baditu bizitegi-erabilera eta instalazioak elkarren ondoan egon ahal izateko.

Hortaz:

a) Ezin izango da erabilera aldatu jarduera edo instalazio bateraezinekin mugakide diren lokaletan edo jarduera edo instalazio bateraezinetik 5 metro baino gutxiagora daudenetan.

b) Era berean, ez da onartuko etxebizitzarekin bateraezina den erabilera berri bat jartzea erabilera aldatzeko lizentzia lortu duen lokalaren mugakide direnetan edo 5 metro baino gutxiagora daudenetan.

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

c) Ez dira baimenduko apartamentu turistiko berriak etxebizitza-erabilerarako onartuta dauden lokaletan, nahiz eta lokala etxebizitza bihurtzeko baimena eman gabe edo eskatu gabe egon.

d) Etxebizitza-erabilerara aldatzeko espedienteetan interesdun izango dira erabilera-aldaketaren xede den lokalaren mugakide diren lokalen eta/edo 5 metro baino gutxiagora daudenen jabeak. Audientzia emango zaie udal lizentzia eman baino lehen, eta hartuko diren akordioak jakinaraziko zaizkie.

II KAPITULUA

ERABILERA ALDATZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK ETA ESTETIKOAK

5. artikulua. Erabilera-aldaketa baimentzeko baldintza orokorrak

Erabilera-aldaketetan ez da aukerarik eta justifikaziorik egongo ez azalera eraikia handitzeko —adibidez, portxe eta arkupeetan itxiturak egitea—, ez lizentziarik gabe eraikitako azalerak legeztatzeko.

Erabilera aldatzeko baldintza gisa jarri ahal izango da inguruarekin eta etxebizitza-erabilera berriarekin bat ez datozen eranskin eta eraikuntza-elementu degradatzaileak kentzea.

Proiektatutako etxebizitzetarako gehieneko azalera erabilgarri konputagarriak gelakopuruaren arabera zehaztuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren II-A.2 eranskinean adierazitakoaren arabera.

Proiektatutako etxebizitzaren benetako azalera erabilgarriak gehieneko azalera konputagarri horiek gainditzen baditu, aztertuko da ea teknikoki bideragarria den gehieneko horiek betetzen dituzten bi etxebizitza edo gehiago lortzea. Egiaztatzen bada teknikoki ezinezkoa dela, azalera handiagoko etxebizitzak eraiki ahal izango dira, baldin eta alokairu edo salmenta prezioaren ondorioetarako kontuan hartu beharreko azalerak ez badu gainditzen aipatutako II-A.2 eranskinean adierazitakoa.

6. artikulua. Lokalen baldintza teknikoak

Erabilera-aldaketa sustatzen duenak behar diren neurri zuzentzaileak hartu beharko ditu beste erabilera batzuetara bideratutako lokalen ondoan bizitegi-erabilera jarri ahal izateko.

Ordenantza honen xede diren lokaletan etxebizitza-erabilera baimentzeko, jarraian adierazten diren baldintza teknikoak bete beharko dira:

6.1. Bizigarritasuna

Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritako baldintzak aplikatuko dira, edo, erabilera aldatzeko lizentzia eskatzen den egunean indarrean dauden ordezko arauak.

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

Salbuespen gisa, baldintza horietakoren bat ez betetzea onartu ahal izango da, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, baina, kasu horretan, hautsitako baldintzarekin lotutako konpentsazio-neurriak hartuko dira.

6.2. Irisgarritasuna

Erabilera aldatzeko lizentzia eskatzen den egunean irisgarritasunaren arloan indarrean dauden xedapen aplikagarrietan jarritako baldintzetara egokitu beharko da.

Nolanahi ere, irisgarritasuna betetzea funtsezko helburua izango da erabilera aldatzeko esku-hartzeetan.

Etxebizitza berriaren sarbidea, lehentasunez, hura kokatuta dagoen eraikinaren barruko zirkulazio-elementu komunetatik egin beharko da. Eraikinaren kanpoaldetik ezkaratzerako sarbidea irisgarria ez izateak ez du eragotziko lokala etxebizitza bihurtzea.

Arrazoi fisikoak, funtzionalak edo bestelakoak direla-eta ezinezkoa bada, Udalak baimena eman ahal izango du, salbuespen gisa, aurrean duen eraiki gabeko kanpoko espaziotik zuzenean sartzeko, kanpoko espazio publikoan eragin negatiborik eragin gabe, udal zerbitzu teknikoek haren egokitasun teknikoa eta estetikoa ebaluatu ondoren, eta honako baldintza hauek betez:

a) Lokalean etxebizitza bat baino gehiago jartzen bada, atari, atarte edo banatzaile irisgarri independente bat eraiki beharko da, etxebizitzetako sarrerako ateak horrantz irekitzeko.

b) Ez da atari, atarte edo banatzailerik eraiki beharko, lokalera partzela pribatu batetik edo erabilera pribatuko portxe batetik sartzen bada. Ezta etxebizitza bakar batera sartzeko bada ere.

c) Kanpotik sarbide berria irekitzeaz gain, udal zerbitzu teknikoek beste aukera batzuk positiboki baloratu ahal izango dituzte, ondo justifikatuta, baldin eta bermatzen bada konponbide berriak ez duela ondorio negatiborik ez kanpoko espazio publikoan ez eraikinaren irudian, segurtasun-pertzepzioa bermatzen bada edo irisgarritasun-baldintzak hobetzen badira.

Oro har, fatxadan ez da atzeraemangunerik onartzen.

6.3. Pribatutasuna eta segurtasuna

Etxebizitzaren lurzorua igo ahal izango da, kanpotik zuzeneko bistarik egon ez dadin, betiere etxebizitzaren irisgarritasunarekin eta ezarritako gutxieneko altuera libreekin bateragarria bada.

Segurtasun-elementuak erabili ahal izango dira (hala nola pertsianak, lamak, burdin-sareak eta abar), betiere fatxadaren lerro ofizialetik irteten ez badira. Pertsianen kasuan, kaxa barruan eduki beharko dute.

6.4. Sukaldearen baldintzak

Sukaldean sortutako keak eta gasak husteko sistema hodi bertikal independente bati konektatuta egongo da, eta ez da fatxadatik joango.

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

Hori ezinezkoa bada, karbono-iragazkiak dituzten ke-kanpaiak edo sistema baliokideak erabili beharko dira, kanpoko ebakuazio-hodi horiek behar ez dituztenak eta barrutian bertan ebakuatzen dutenak. Iragazkiak aurreikusitako epeetan ordeztu beharko dira, bizilagunei eragozpenik ez sortzeko.

6.5. Errekuntzako ke eta gasen hustuketa

Keak edo gasak sortzen dituzten ur beroko eta berokuntzako ekoizpen-sistemen hodiak, ahal dela, estalkira eramango dira (hodiak fatxadatik igaro gabe). Eraikinak argi-patioa badu, eta teknikoki posible bada, hodia patio horretatik joango da estalkiraino.

Salbuespen gisa, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik eta aurreko ataletan jasota ez dauden kasuetan, eta betiere araudi sektorial aplikagarrian jarritako zehaztapen teknikoak betetzen badituzte, etxadi-patiora ebakuatu ahal izango da; eta, hori ezinezkoa bada, fatxadara, bide publikoaren sestrarekiko 2,20 m-tik gorako altueran. Kasu horietan, eraikinaren altxaera osoaren azterketa egin beharko da, aipatutako hodiak kalte gutxien non eragingo duen erabakitzeko eta zirkunstantzia hori justifikatzeko (goiko solairuetako hodien bertikal bera, kokapen ez hain ikusgarria, etab.).

Bestela, energia alternatiboko iturriak erabili beharko dira, alegia, haiek elikatzeko eta ekoizteko kerik eta gasik sortzen ez dutenak.

Debekatuta dago bide publikotik ikus daitezkeen aire girotuko aparatuak instalatzea. Etxadi-patio pribatuko fatxada batean jarri behar badira, eraikinaren altxaera aztertu beharko da, eta fatxadaren estetika gutxien kaltetzen duen lekuan jarriko dira.

Aire-berritzetik, klimatizagailuetatik… datorren eta bide publikora ematen duen aire-irteerako edozein saretak araudi sektorial aplikagarriak jarritako zehaztapen teknikoak beteko ditu, eta, gainera, urbanizazio publikoaren sestrarekiko 2,20 m-ko gutxieneko altueran kokatu beharko da. Sareta horiek, ahal dela, lehendik dauden/proposatu diren baoen arotzerian integratuko dira. Behar bezala justifikatutako kasuetan bakarrik baimenduko dira saretak fatxadako behe-solairuetako aurrealde itsuetan, fatxadaren kolore berean margotuta.

6.6. Saneamendua

Etxebizitza berrien hondakin-uren saneamendu-sarea eraikinean lehendik dagoenari konektatuko zaio, eta udal sarera isuriko da lehendik dagoen hargunearen bidez. Hori ezinezkoa bada (kota eskasa, etab.), onartuko da udal sarera hargune berri bat egitea, hala eskatzen duten etxebizitza berri guztientzat.

6.7. Kontagailuak, instalazio-moduluak eta postontziak

Irizpide orokor gisa, etxebizitza berrien kontagailuak, instalazio-moduluak, postontziak eta antzekoak dagozkien sareen baterietan sartuko dira, bizitegi-eraikinean lehendik daudenetan.

Baldintza hori betetzea ezinezkoa bada, aurkeztu beharreko proiektu teknikoan zehaztuko da horien kokapena, indarrean dagoen araudiaren eta konpainia hornitzaileek horretarako ematen dituzten jarraibideen arabera.

Halakoetan, elementu horiek eraikineko sarbide eta zirkulazio-espazio komunetako batean, ezkaratzean, ordenantza honetan aurreikusitako atartean edo banatzailean kokatu ahal izango dira, edo, salbuespen gisa, udal zerbitzu teknikoen iritziz, eraikinaren fatxadan

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

sartutako nitxo itxi batean, kanpoko akabera mimetizatuarekin edo fatxadarekin bateragarria den konposizioarekin, eta fatxadako planotik atera gabe.

6.8. Fatxadak

Etxebizitza berriaren fatxadaren tratamendua bat etorriko da eraikin osoaren konposizio eta materialekin.

Aurkeztuko den proiektuak grafikoki adieraziko du baldintza horien justifikazioa, lokalaren fatxada bakoitzerako. Gainera, proiektuaren xede den eraikuntzaren argazki eguneratuak ere aurkeztu beharko dira, materialen erabilera eta konposizioak justifikatzeko.

Erabilera aldatzeko sortu behar diren bao berriek edo lehendik daudenen egokitzapenek nolabaiteko lotura izan beharko dute goiko solairuetako baoekin. Gai hori udal zerbitzu teknikoek baloratuko dute. Era berean, nolabaiteko lotura eduki beharko dute eraikin bereko behe-solairuko baoekin. Eta emaitzak nabarmenki kaltetzen ez badu osotasunaren estetika, baoen buruek eta beheko aldeek (gorputz osokoak ez badira) horizontal bera errespetatuko dute.

Eraikin berean etxebizitza egokitzeko segidako jarduketak egiten direnean, fatxaden tratamendua bat etorriko da lehenbizi egin den obraren materialekin eta konposizio-ezaugarriekin. Udalak dagozkion aginduak eman ahal izango ditu deskribatutako helburua bermatzeko.

Behe-solairuko lokalak eraldatzearen ondoriozko etxebizitza berrietan bizigarritasun-baldintza egokiak bermatzeko, ezin izango da hiri-altzaririk kokatu fatxaden hurbileko espazioan, 2 metro baino gutxiagoko distantziara, bereziki fatxadako baoei eragiten badie (bizikleta-aparkalekuak, bankuak, aparkaleku-plazak, edukiontziak, etab.). Lehendik horrelako elementuak badaude, proiektuan jaso beharko dira, eta horiek lekualdatzea edo ezabatzea proposatu. Lizentzia emateko erabakian, gai horri buruz egin beharreko ekintzak jaso beharko dira.

6.9. Solairuarteak eraikitzeko baldintzak

Solairuarteak eraiki ahal izango dira betiere emaitzazko altuera libreek —goikoak eta behekoak— bizigarritasun-araudian jarritako gutxienekoak betetzen badituzte.

Solairuarteak I eranskinean adierazitako lokalen solairuari atxikita egon behar du nahitaez, solairu horretatik izango du sarrera bakarra, eta gehienez lokalaren azalera erabilgarriaren % 40 har dezake. Fatxadaraino irits daiteke, baoen konposizioa behar bezala txertatzen bada osotasunean. Kasu horietan, sarbideko solairuak gutxienez 35 m^2-ko azalera erabilgarria izango du.

III KAPITULUA

ERABILERA-ALDAKETAREN EMAITZAZKO ETXEBIZITZEN ARAUBIDE JURIDIKOA

7. artikulua. UDAL ETXEBIZITZA TASATU gisa kalifikatzea. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea

Ordenantza hau aplikatuta gaitzen diren etxebizitzei ARAUBIDE BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAren araubidea ezarriko zaie.

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

Kalifikazio hori iraunkorra izango da, eta, hortaz, ordenantza honetan eta ZARAUZKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO ORDENANTZAn jarritako erregimena aplikatuko zaio. Beraz, Jabetzaren Erregistroan adierazi beharko da etxebizitza erregimen juridiko horri atxikita dagoela.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarriaren zazpigarren atalak xedatutakoari jarraikiz, Administrazio eskudunak beti eskubidea izango du etxebizitza horiek lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko. Eskubide horiek Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legean eta ordenantza honetan xedatutakoaren arabera gauzatuko dira.

8. artikulua. Etxebizitzaren erabilera-erregimena

Erabilera-aldaketaren sustatzaileak aukera izango du etxebizitza besterentzeko, jabetzan erabiltzeko edo errentan emateko.

Etxebizitza jabetza- edo alokairu-erregimenean erabili ahal izango da, baina beti ohiko etxebizitza iraunkor gisa, eta berariaz debekatuta egongo da bigarren etxebizitza izatea edo beste edozein erabilera ematea.

Ordenantza aplikatuta lortzen diren etxebizitzak ezin izango dira inola ere turismorako edo sasoiko alokairurako erabili, ezta prekarioko erregimenean laga ere.

9. artikulua. Eraldaketaren sustatzaileak

Edozein pertsonak, fisikoa zein juridikoa, sustatu ahal izango du lokal bat etxebizitza bihurtzea, baldin eta jabea bada edo lokalaz baliatzeko gaitasuna behar bezala egiaztatzen badu.

Eraldaketaren sustatzaileak bere gain hartuko ditu lokala ordenantza honetan jarritako baldintzetara egokitzeko obrak, eta Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legeak eta gainerako araudi aplikagarriak ematen dioten erantzukizuna izango du.

Sustatzaileak higiezina besterentzeko edo errentan emateko borondatea duen azaldu beharko du, jarduketa bere erabilerarako egin nahi denean izan ezik.

10. artikulua. Etxebizitzen hartzaileek bete beharreko baldintzak

Etxebizitzen hartzaileek UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO ORDENANTZAk ARAUBIDE BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUetarako jarritako gehieneko eta gutxieneko diru-sarrerak izango dituzte.

Gainera, udalerrian izango dute bizilekua, UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO ORDENANTZAn xedatutakoari jarraikiz. Baldintza hori betetzen den erabakitzeko erreferentziazko data obra-lizentziaren eskaerarena izango da.

Etxebizitza erosi edo errentan hartu nahi dutenek ETXEBIZITZA ESKATZAILEEN ERREGISTROAn (ETXEBIDE) izena emanda egon beharko dute.

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

Era berean, dokumentazio eguneratua aurkeztu beharko dute, egiaztatzen duena ETXEBIDEn sartzeko baldintzak betetzen dituela eta, zehazki, etxebizitza-premia duela.

Etxebizitza-premiari dagozkion baldintzak eta salbuespenak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko aginduak edo hura ordezten duenak jasotzen dituenak izango dira.

Onuradunaren diru-sarrerak ez badira udal ordenantzak ARAUBIDE BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUetarako jarritako gehienekoa baino handiagoak, baina bai ETXEBIDEn sartzeko baimendutako gehienekoa baino handiagoak, kasu horretan bakarrik eta ETXEBIDEn sartzeko gainerako baldintzak bete ondoren, ETXEBIDEn alta emanda egoteko baldintzatik salbuetsita egongo da.

Lokala etxebizitza bihurtzeko lizentzia eskatu baino gutxienez bi (2) urte lehenagotik lokalaren jabe diren pertsonak salbuetsita daude ETXEBIDEn inskribatuta egoteko baldintzatik, eta etxebizitzaren erabiltzaile izan ahalko dira zuzenean, baita haien ezkontideak edo bigarren mailako edozein familiar zuzeneko (aitona-amonak, gurasoak, seme-alabak, bilobak) edo alboko ere (anai-arrebak). Bai bete beharko dute, gutxienez, etxebizitza-premiari buruzko baldintza.

Lokala jabe bat baino gehiagorena bada, aurreko atalean araututako salbuespena aplikatzeko, % 50etik gorako titulartasuna eduki behar izan du.

IV KAPITULUA

LOKAL BAT UDAL ETXEBIZITZA TASATU BIHURTZEKO PROZEDURA

11. artikulua. Lokalak etxebizitza bihurtzeko obra-lizentziak

Lokal bat etxebizitza bihurtzeko baimena emateko prozedura obra-lizentzia eskatzearekin batera hasiko da. Eskaerarekin batera, ZHAPOko 5. Tituluan (Hirigintza Lizentzien Erregimena) xedatutakoari kalterik egin gabe, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Erabilera berriaren justifikazio-memoria zehatza, berariaz adierazita ordenantza honetan jarritako baldintzak nola beteko diren.
b) Azaleren zerrenda, instalazioak eta ordenantzaren baldintzak betetzeko egin beharreko obren aurreikuspena.
c) Kokapen-planoa, finka non dagoen adierazteko.
d) Plantaren eta fatxaden egungo eta etorkizuneko egoeraren planoak, gutxienez 1:100 eskalan, ondo ulertzeko behar diren sekzioekin.
e) Lokala dagoen eraikinaren fatxadaren argazkia eta lokalaren egungo egoeraren argazkiak.

Dokumentazioak teknikari edo tituludun eskudun batek sinatuta eta haren elkargo ofizialak ikus-onetsita egon beharko du.

Obra-lizentziaren eskaerarekin batera, sustatzaileak honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

a) Etorkizuneko etxebizitzaren xedea zehazten duen adierazpena (salmenta, alokairua, norberaren erabilera...).

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

b) Lokalaren jabetza egiaztatzeko agiriak (Jabetza Erregistroaren ziurtagiria, titulartasuna egiaztatzen duen eskritura publikoa...).
c) Sustatzailea jabea ez bada, jabeak sinatutako dokumentu bat, lokalaz baliatzeko gaitasuna egiaztatzen duena.
d) Saltzeko edo alokatzeko aurreikusitako prezio maximoak, eta adjudikaziodunen izendapen-proposamena, hargatik eragotzi gabe hurrengo artikuluan ezarritakoa.

12. artikulua. Araubide juridikoa eta etxebizitza-erabilera baimentzeko baldintzak

12.1. Etxebizitzak eskualdatzeko eta alokatzeko baldintzak. Eroslehentasun-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea.

Etxebizitzaren jabeak hura besterentzea edo alokatzea erabakitzen duenean (bai lehenengo salmentan/alokairuan bai ondoz ondokoetan), prozedura hau jarraituko da:

a) Jabeak Udalari jakinarazi beharko dio etxebizitza besterentzeko edo alokatzeko erabakia hartu duela, eta datu hauek erantsiko ditu: prezioa, aurreikusitako eragiketaren funtsezko baldintzak, interesdunaren datuak (jakinarazpenak bidali ahal izateko), eta etxearen balizko erosleak edo errentariak ordenantza honetan eskatutako baldintzak benetan betetzen dituela egiaztatzeko datuak.
b) Eskualdaketaren edo alokairuaren erabakia modu formalean jakinarazi eta bi hilabeteko epean, Udalak interesdunari jakinaraziko dio lehentasunez erosteko eskubidea erabiliko duen ala ez, eta, ondorioz, etxebizitza ARAUBIDE BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAri dagokion prezioan erosiko duen ala ez.
c) Era berean, bi hilabeteko epe horretan, eta beharrezkoa bada, Udalak, aurkeztutako datuak egiaztatu ondoren, bere iritzia emango du proposatutako erosle/errentari adjudikazioduna ontzat emateari buruz. Horretarako, Udalak datu osagarriak eskatu ahal izango ditu. Kasu horretan, epea eten egingo da, jabeak datuok eman arte.
d) Aurreko bi paragrafotan zehaztutako epean jakinarazi ez bada lehentasunez erosteko eskubideari buruzko berariazko ebazpena edo, bestela, etxebizitzaren erosle/adjudikaziodunaren onespena, libreki egin ahalko da proiektatutako besterentzea edo errentamendua.
e) Eskualdatzaileak ez badu jakinarazpenik egin, edo jakinarazpena akastuna bada edo osorik ez badago, edo jakinarazitako eskualdatzea eroslehentasun-eskubidea iraungi aurretik egin bada edo jakinarazitako baldintzetan egin ez bada, Udalak atzera eskuratzeko eskubidea erabili ahal izango du. Eskubide hori erabiltzeko epea 60 egun naturalekoa izango da eskuratzaileak jakinarazpena egin eta biharamunetik kontatzen hasita; izan ere, eskuratzaileak, kasu guztietan, jakinarazi egin beharko dio Udalari funtsezko zein baldintzatan egin zen eskualdatzea, dagokion eskritura publikoaren kopia frogagarria emanez. Adierazitako jakinarazpena egiteko, eskuratzaileak 30 egun naturaleko epea izango du, eskualdatzea eskritura publikoan jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Egindako eskualdatzearen berri jakinarazteko eginbeharra bete ez bada, Administrazioak, beste bideren batetik jakiten badu eskualdatze hori izan dela, atzera eskuratzeko eskubidea erabili ahal izango du jakiten duen unetik bertatik.
f) Udalak etxebizitza horiek erosten baldin baditu, udal ondarean sartuko ditu, eta alokairurako, ostatu emateko, prekarioan lagatzeko edo antzeko helburu baterako erabiliko dira.

12.2. Lehentasunez erosteko eskubidearen salbuespena

Etxebizitzaren jabetzaren eskualdaketan edo alokairuan ez da beharrezkoa izango ordenantza honen 10 artikuluan jarritako baldintzak betetzea, baldin eta jabe-

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

eskualdatzailearen/errentatzailearen familiarteko baten alde egiten bada (ikus aipatutako artikulua). Dena den, kasu horretan ere, Udalari formalki adierazi beharko zaio eskualdatzeko asmoa, Jabetzaren Erregistroan formalizatzeko eta inskribatzeko.

12.3. Etxebizitzen jabetza eskualdatzeko udal baimena

Salerosketako eta/edo errentamenduko edozein kasutan, beharrezkoa izango da Udal Administrazioak kontratua onestea, UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO ORDENANTZAn xedatutakoaren arabera. Onetsi gabe ezin izango da eskritura publikoan formalizatu, ezta Jabetzaren Erregistroan inskribatu ere.

12.4. Adjudikaziodunaren baldintzak

Dena den, ordenantza honek araututako etxebizitzen adjudikaziodun izateko ezinbestekoa izango da ordenantza honek eta ZARAUZKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO ORDENANTZAk jarritako baldintzak betetzea jabe eskualdatzaileak Udalari salmenta jakinarazten dion unean.

13. artikulua. Udalak adjudikazioduna izendatzea

Erabilera propioaren kasuan izan ezik, sustatzaileak idatziz jakinarazi beharko dio Udalari ea sustatzaileak berak proposatuko duen etxebizitzaren adjudikazioduna. Bestela, Udalari eskatuko dio berak izenda dezala. Lokala etxebizitza babestu gisa behin-behinean kalifikatzen denetik hamabost (15) eguneko epean jakinarazi eta/edo eskatu beharko da; jakinarazpenik aurkezten ez bada, sustatzaileak adjudikaziodunaren izendapena Udalak egitea aukeratzen duela ulertuko da.

Eskaera egin eta gehienez ere hiru (3) hilabeteko epean, Udalak adjudikaziodunen izenak jakinaraziko dizkio sustatzaileari, jabe edo errentari gisa, behin-behineko kalifikazioan finkatutako prezioaren edo errentaren arabera. Erabilera propioaren kasuan, Udalak epe berean jakinaraziko du bere adostasuna edo ikusitako akatsak zuzentzeko beharra.

Udalak ez badu adjudikaziodunik izendatzen epe barruan, sustatzaileak ahalmena izango du horiek izendatzeko. Era berean, dokumentazioa aurkezten ez bada edo baldintzak betetzen ez badira, erabilera propioaren kasuan, Udalak ahalmena izango du adjudikaziodunak izendatzeko.

Adjudikazioduna obra-lizentzia eskatu ondoren izendatu edo proposatu ahal izango da, baita behin-behineko kalifikazioa eman ondoren ere, baina betiere lehen erabilerako lizentzia eta behin betiko kalifikazioa baino lehen.

14. artikulua. Behin-behineko kalifikazioa

Obra-lizentzia emateak lokala behin-behinean etxebizitza babestu gisa kalifikatzea dakar.

Ebazpenean, sustatzailearen izenaz eta identifikazio fiskalaz eta kalifikazioaren izaera iraunkorraz gain, sustatzaileak emandako datu hauek ere jasoko dira:

a) Emaitzazko etxebizitzaren azalera erabilgarria.
b) Erabilera-erregimena (jabetzan edo errentan).

ESKU0efbb7ff-2241-4501-a75d-8ad25a3f1b8a

c) Salmenta edo errentaren gehienezko prezioa.

15. artikulua. Lehen erabilerako baimena eta behin betiko kalifikazioa

Lehen erabilerako lizentzia emateak berekin dakar behin betiko kalifikazioa, eta kalifikazio horrek aukera emango du lokal horren eskualdatzea edo errentamendua formalizatzeko eta, ondorioz, okupatzeko.

Obrak amaitu ondoren, lehen erabilerako lizentzia eskatu beharko da, eta honako baldintza hauek betetzen direla egiaztatu ondoren emango da:

a. Obrak onartutako proiektuaren arabera egin direla.
b. Etxebizitza hiri-zerbitzuen sarera konektatuta dagoela (ur-hornidura, saneamendua, energia elektrikoaren hornidura, gasa, etab.)
c. Obra-lizentzian jarritako gainerako baldintzak betetzen direla.

Gutxienez dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a. Obrako azken ziurtagiri ikus-onetsia, Zuzendaritza Fakultatiboak sinatuta, obrako azken likidazio eta guzti.
b. Hondakinen kudeaketaren azken txostena, egiaztatutako entitate batek ziurtatua, lehen erabilerako lizentziaren eskaera-egunean arlo horretan indarrean dagoen legediaren arabera.
c. Ur, elektrizitate, gas, berokuntza edo telekomunikazioen hornidura-zerbitzuak martxan jartzeko azken ziurtagiriak, buletinak edo dokumentuak.
d. Etxebizitza berriaren barruko eta kanpoko argazkiak.
e. Bukatutako eraikinaren efizientzia energetikoaren ziurtagiria, hala badagokio.
f. Obra berriaren deklarazioaren eskrituraren zirriborroa. Hor adieraziko da etxebizitzak prezio mugatu hitzartua izango duela beti eta Udalak eskubidea duela lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko.
g. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailaren ziurtagiria, etxebizitza berriari Ondasun Higiezinen gaineko Zergan alta eman zaiola egiaztatzen duena.
h. Etxebizitza erosteko edo alokatzeko pertsonak izendatzeko proposamena. Horrekin batera agiri bidez justifikatu beharko da betetzen direla ARAUBIDE BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUA eskuratzeko baldintzak, aldez aurretik lizentzia-eskaerarekin batera aurkeztu ez badira.
i. Lizentziaren baldintzetan eskatutako beste edozein dokumentu.

Dokumentazioa ikusita, udal zerbitzu teknikoek egiaztatuko dute obrak bat datozela onartutako proiektu teknikoarekin, eta lehen erabilerako lizentziari buruzko txostena egingo dute.

Lehen erabilerako lizentzia emateak aukera emango du lokal horren eskualdatzea edo errentamendua formalizatzeko eta, ondorioz, okupatzeko.

Lehen erabilerako lizentzian, berariaz jasoko da ARAUBIDE BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATU gisa gaitutako etxebizitza berriaren behin betiko kalifikazioa, eta azalerari, gehieneko prezioari eta erabilera-araubideari buruzko behin betiko datuak adieraziko dira.

16. artikulua. Kontratua formalizatzea eta etxebizitza okupatzea

